

Betetze Penaleko Politika

Politika honen helburua da esplizituki eta irmoki adieraztea ITELAZPIk duen konpromisoa legeko arauen eta arau etikoen betetzearekiko; beraz, sozietatea legez kontrako edozein delitu penal egitearen aurka dago eta, horregatik, etikazko eta arauak betetzeko kultura garatzen eta hedatzen du bere jarduera osoan.

Politika hau aplikatuko zaie antolakuntzako administratzaile, zuzendaritza-kide eta langile guztiei eta erreferentziazko esparrua izan behar da, non sozietateak ezartzen duen arrisku penalen kudeaketasistema sartzen den. Horrez gain, ITELAZPIk beharrezko neurriak hartuko ditu bere betetze-kultura hedatzeko interes-taldeei, bereziki enpresa hornitzaileei, hain zuzen, sozietatearen arrisku penalekiko esposizio-maila murrizteko mekanismo gisa.

ITELAZPIko pertsona guztiak daude behartuta antolakuntzaren Kode Etikoa betetzera, delituzko jokabideak ez izatera eta balizko legez aurkako ekintzak edo irregulartasunak salatzen horien, berri badute; horretarako, sortutako salaketa-bidea erabiliko dute eta ezingo dute horregatik errepresaliarik jasan. Era berean, nahitaez bete beharreko arauak urratzen dituzten ITELAZPIko pertsonak zigortuko ditu sozietateak, jokabide horiek erantzukizun penalak eragin ditzaketen gorabehera.

Horretarako, ITELAZPIk badauka arrisku penalak kudeatzeko sistema bat, identifikatutako arriskuen aldizkako ebaluazioan eta izapidetzean oinarrituta; sistema hori delituzko jokabideak prebenitzeko, antzemateko eta kontrolatzeko mekanismo bat da, non horren erantzukizun-profil desberdinak integratuko diren. Independentziaz jardungo dute eta lehen aipatutako betetze-kulturak gidatuko ditu; halaber, guztiek errespetatuko dituzte barne-mailan ezarritako borondatearen prestakuntza-prozesuak.

ITELAZPIk konpromisoa hartzen du beharrezko bitartekoak eta bideak hornitzeko, sistema behar bezala ezarri eta mantentzeko, langileen eta interes-talde nagusien artean benetako betetze-kulturaren kontzientziazioa eta komunikazioa bermatuz.

Ezarritako arrisku penalen kudeaketa-sistema urtero ebaluatuko dute horren arduradunak eta zuzendaritza nagusiak eta, gainera, aldizka berrikusiko da, etengabeko hobekuntza bermatze aldera.

2018ko martxoak 21

Administrazio-kontseilua.

Itelazpi kanal konfidentziala ezarri du edozein pertsonak komunika ditzan, fede onez, Arrisku Penalen Kudeaketa-sistemaren barne-araudiaren edo indarreko legeriaren gaineko balizko ez-betetze eta irregulartasunen inguruko salaketak edo kontsultak; hauxe da kanal hori:

salaketak@itelazpi.eus

